

Etxebizitzen Funts Soziala

Euskadiko Kutxaren Etxebizitzaren Funts Soziala sortzea

Laboral Kutxak, gizartearekin hartutako konpromisoaren barruan, Etxebizitzen Funts Soziala (EFS) sortzeko hitzarmena sinatu zuen 2013ko urtarrilaren 17an, beste 33 finantza-erakunderekin batera; baita Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioarekin, Sustapen Ministerioarekin eta Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioarekin ere. Laboral Kutxak 35 etxebizitza eman ditu.

Hitzarmenaren helburua da alokairu-erregimeneko etxebizitzen funts sozial bat sortzea, 2008tik hipoteka bat ez ordaintzeagatik etxetik bota dituzten pertsonentzat.

Izapidetzea

Interesdunak Laboral Kutxaren edozein sukurtsaletara jo ahal izango du, baita “www.laboralkutxa.com/fondo_social_de_viviendas” web-orrira ere. Bertan, Etxebizitzen Funts Sozialean izena emateko beharrezkoa den informazioa eskatu ahal izango du.

Eskatzaileak, beharrezko dokumentazio guztia bildu ondoren, Laboral Kutxaren edozein sukurtsaletara jo beharko du, eta han eskatutako dokumentazioa entregatu eta eskaera izapidetuko du.